




SANTO TOMAS  
LIZEOA



## BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure helburua betetzeko, beharrezkoa da bezeroak guran konfiantza edukitzea, hau da, bezeroak ziurtasuna edukitzea ez ditugula engainatu behar eta sortuko dugun aplikazioa fidagarria dela. Gaur egun, gure gizartearen kezka nagusietako bat pribazitasuna da, beraz, beraien informazio pertsonalarekin zer gertatuko den jakin nahiko dute. Horretarako, gure pribazitasun legeen berri emango diegu aplikazioa instalatzeko prozesuan eta aurrera jarraitzeko, hauek irakur eta onartzea beharrezkoa izango da.

Aipatutako konfiantza hori lortzeko, webgune bat sortuko dugu, gure politikari eta balioei buruzko informazio guztiarekin. Galderak egiteko atal bat sortuko dugu eta erantzunak guk (langileok) emango ditugu. Ondoren, webgunean bertan aurkituko dira, denon esku egon ahal izateko. Arazo puntual edo pertsonalagoi erantzuteko berriz, email bat sortuko dugu, bezeroak gurekin zuzuenan harremanetan jarri daitezten.

Bezeroak fidelizatzeko orduan, gure ustez oso garrantzitsua da sortu nahi dugun komunitatean ongietorriak sentitzea. Horregatik, hiru hilero, hiri bakoitzeko arduradunak hirian aplikazioa dutenen arteko bilera informal bat antolatuko du. Hainbat helburun edukiko ditu: jendea ezagutu, beraien artean lagundu eta enpresaren aldaketen berri eman. Hortaz gain, eskaerak edo proposamenak jasoko ditugu bilera hauetan, gure aplikazioa hobetzen lagunduko diguna. Gainera, bilera hauetan pultserak, ur botilak, motxilak, bixerak... eta beste motatako produktuak banatuko dira.

Gure ustez bezeroekiko gertutasun hau da konpetentziatik desberdintzen gaituen ezaugarri nagusietako bat. Komunitate bat sortu nahi dugu parte hartzaileen artean laguntasuna eta babesa emateko. Honek bezeroak proposamenari lotuta mantentzea lortuko duela uste dugu.